LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Lehenengo Hiruhilekoa 2019

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Lanbide

Txosten honek, 2019ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez. Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzan eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal Estatistika Erakundearen "Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta", BJA).

Edukia

Testuinguru Ekonomikoa 4

Lanbiden erregistratutako langabezia 5

Afiliazioa Gizarte Segurantzan 6

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak 7

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA) 8

Testuinguru Ekonomikoa

2019ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %2,2ko hazkundea izan du; 2019 urte osoari dagokionez hazkunde bera aurreikusten da

Eustat-ek aurreratutako datuen arabera, **EAE**ko BPGak urte arteko %2,2ko hazkundea izan du 2019ko lehenengo hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuz. Erregistratutako tasa aurreko hiruhilekoan baino 2 hamarren baxuagoa izan da (%2,4). Beraz, jadanik lau epealdi kateatu dira hazkunde txikiagoak jasoz, moteltze joera leun bati jarraituz.

Sektoreen analisiak adierazten du industriak bizitasuna berreskuratu duela aurtengo hasieran, 2018ko amaieran pairatu zuen balio erantsiaren jaitsiera txikiaren ondoren. Aitzitik, gainontzeko sektoreek gehikuntza tasa esanguratsuak eskuratu zituzten, baina 2018ko laugarren hiruhilekokoak baino zertxobait txikiagoak.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2019ko maiatza" txostena

Europako Ekonomiari dagokionez, Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute Eurogunea %1,2 hazi zela 2019ko lehenengo hiruhilekoan (aurreko hiruhileko datu berdina).

Espainiako Ekonomia %2,4 hazi zen 2019ko lehenengo hiruhilekoan (aurreko hiruhileko urte arteko hazkunde tasa baino 0,1 puntu gehiago).

Etorkizunerako aurreikuspenen arabera, hazkunde ekonomikoaren moteltze arin bat aurreikusten da 2019 urterako, 2018 urtean erregistratutako datuekin alderatuta. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, Consensus Forecast-ek 2019 urterako Eurogunerako egindako aurreikuspena %1,1ekoa da, eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) Espainiarako egindako aurreikuspena %2,1ekoa.

Euskadiri dagokionez , Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak %2,2ko hazkundea aurreikusten du 2019 urterako.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2019ko maiatza" txostena

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruak hiruhileko arteko %1,4ko jaitsiera izan du urteko lehenengo hiruhilekoan; -2.547 gizonezko eta +825 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** jaitsi egin da 2019ko lehenengo hiruhilekoan (1.722 pertsona gutxiago); guztira erregistratutako langabe kopurua 117.952 pertsonakoa izan da. Hiruhileko arteko jaitsiera %1,4koa izan da eta urte arteko jaitsiera %7,2koa.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 2.547 pertsonatan jaitsi da gizonezkoen artean eta 825 pertsonatan igo da emakumezkoan artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 50.474 pertsonatan kokatu da eta 67.478 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan, 35-44 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-1.492); ondoren, 45-54 urte bitartekoen artean (-826) eta 25-34 adin tartean (-672). 16-24 eta 55-64 adin tarteetako langabetu kopurua 853 eta 415 pertsonatan igo da, hurrenez hurren.

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Araba izan da langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duen lurraldea (-%1,8; -353). Ondoren, Gipuzkoa (-%1,5; -460) eta Bizkaia (-%1,3; -909).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan, Lanbiden erregistratutako langabetu atzerritarren kopurua %2,3an jaitsi da eta bertako langabetu kopurua %1,3an jaitsi da. Lehengo kasuan langabetu kopurua 18.636 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 99.316 pertsonatan.

Ikasketa-mailaren arabera, Unibertsitate ikasketak dituzten langabeak %4,0an murriztu dira; jarraian Derrigorrezko ikasketak dituztenak (-%1,6). Batxilergoko ikasketak dituzten langabeak %0,6 igo dira eta Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak berdin mantendu dira.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan langabetu kopuruan jaitsierarik handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: (i) Enpleguarekin lotutako jarduerak (-908); (ii) Eraikuntza espezializatuko jarduerak (-465); eta (iii) Hezkuntza (-442). Bestalde, aipatu beharra dago langabe kopuruak hurrengo sektoreetan izandako igoera: (i) Laguntza egoitza establezimenduetan (+535); (ii) Txikizkako merkataritza (+420); eta (iii) Osasun jarduerak (+203).

Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 960.275 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %0,2 baxuagoa

EAEn 2019ko lehenengo hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 960.275 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino %0,2 baxuagoa eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %1,8 altuagoa.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %53a gizonezkoak dira eta %47a emakumezkoak.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50,0). Gipuzkoan, %33,5ekoa izan da eta Araban %16,5ekoa. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian gertatu da afiliatu kopuruaren jaitsierarik handiena (-1.229); ondoren Araban (-526) eta Gipuzkoan (-73).

Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, lehenengo hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Manufaktura industria (%18,4); (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (%14,3); (iii) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%9,8); (iv) Hezkuntza (%7,8); eta (v) Ostalaritza (%6,9). Hala ere, 2019ko lehenengo hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu gehien galdu dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (-2.656) eta (ii) Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa (-1.989). Afiliatu gehien irabazi dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: (i) Hezkuntza (+1.281) eta (ii) Manufaktura industria (+1.127).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua %1,3 igo da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 64.040 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %6,7koa da, afiliatu autoktonoena %93,3koa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa %2,5 igo da eta emakumezkoen afiliazioa %0,2 jaitsi da. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa Gipuzkoan %1,5 igo da, Araban %1,3 eta Bizkaian %1,1.

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

Lehenengo hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %17,4 jaitsi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 226.835ekoa izan da

2019ko lehenengo hiruhilekoan EAEn **kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua** guztira 113.936koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %17,4 gutxiago. Sexuari dagokionez gizonezko eta emakumezkoen artean izandako jaitsiera oso antzekoa izan da (-%17,4 eta -%17,3, hurrenez hurren).



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %45,5ak Derrigorrezko ikasketak ditu, %20,7k Batxilergo ikasketak, %17,1ek Unibertsitate ikasketak eta %16,1ek Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2019ko lehenengo hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 35-44 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %27,0ko pisuarekin. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, aztertutako talde guztiek izan dute jaitsiera kontratatutako pertsona kopuruari dagokionez, 25 urte baino gutxiagoko taldea nabarmenduz (-%26,1).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen %85,2a bertakoa da eta %14,8k atzerriko nazionalitatea du (aurreko hiruhilekoan baino 1,5 puntu gutxiago). Atzerritarren artean, nazionalitate nabarmenenak hurrengoak dira: latinoamerikarra (%38,8), Europar Batasunekoak eta kanpokoak (%24,7) eta Afrika iparraldekoak (%15,6).

Lehenengo hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopuruari dagokionez**, EAEn kokatutako lanpostua duten 226.835 kontratu erregistratu dira (kontratatutako pertsonak baino 2 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, zifra honen jaitsiera %14,1ekoa izan da.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera arruntak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %9,1a kontratu mugagabeak izan dira eta %90,9a aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %40,3a kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,1 puntu gutxiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, Araba izan da jaitsiera handiena izan duen lurraldea kontratazioari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-%19,4). Jarraian, Bizkaia (-%14,7) eta Gipuzkoa (-%9,3). Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%52,7; 119.446); jarraian, Gipuzkoa (%29,0; 65.821) eta Araba (%18,3; 41.568).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: (i) ostalaritza (%16,1); (ii) manufaktura industria (%15,7); (iii) osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (%11,6); (iv) administrazio jarduerak (%11,4); eta (v) merkataritza (%10,5). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea manufaktura industria da (%24,4) eta emakumezkoen artean ostalaritza (%20,5).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %10,2koa izan da eta enplegu tasa %50,7koa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **enplegu tasa** %50,7koa izan da 16 urte edo gehiagoko populazioaren artean (%56,0 gizonezkoen kasuan eta %45,9 emakumezkoen kasuan). Okupatu kopurua guztira 935.100ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 2.300 pertsona gutxiago. Gizonezkoen kasuan, okupatu kopurua 495.200ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %0,8 gehiago) eta 439.900ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %1,4 gutxiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%79,8) 430.400 okupaturekin. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%21,5) 36.000 okupaturekin. Hala ere, balore erlatiboetan, lehenengo hiruhilekoan eboluziorik onena izan duen taldea 16-24 urte bitartekoa izan da (+%0,8 aurreko hiruhilekoari dagokionez).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan eta Araban izan da enplegu tasarik handiena (%51,8 kasu bietan), jarraian Bizkaian (%49,8). Hala ere, Bizkaia izan da okupatu kopuruari dagokionez igoera izan duen lurralde bakarra (+%0,1). Araban eta Gipuzkoan okupatu kopurua jaitsi egin da: -%1,6 eta -%0,1, hurrenez hurren.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (%71,7). Ondoren, Industria sektorea (%21,6), Eraikuntza sektorea (%5,5) eta Lehen sektorea (%1,1).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %68,9k kontratu mugagabeak – finkoak izan dituzte Euskadin eta %31,1ek aldi baterako kontratuak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratu mugagabe - finkoen kopurua %0,4 igo da eta aldi baterako kontratuen kopurua %2,0 jaitsi da. Kontratuen partzialtasunari dagokionez, kontratuen %81,6 lanaldi osokoak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,4 puntu gutxiago) eta %18,4 lanaldi partzialekoak.

Lehenengo hiruhilekoan, EAEko **langabezia tasa** %10,2koa izan da (%9,0 gizonezkoen artean eta %11,5 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 106.200 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %1,0 gutxiago. Emakumezkoen kasuan igoera 4.800 pertsonakoa izan da eta gizonezkoen kasuan jaitsiera 5.800 pertsonakoa izan da.

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (%8,1); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (11,6%) eta 16-24 urte bitarteko taldea (19,7%). Eboluziorik onena izan duen taldea, balore erlatiboetan, 45 urte edo gehiagokoena izan da %2,8ko jaitsierarekin.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (%7,9), jarraian Araban eta Bizkaian (%11,3 kasu bietan). Langabetu kopurua igo den lurralde bakarra Araba izan da (+%2,9). Gipuzkoan eta Bizkaian -%4,3 eta -%0,5eko eboluzioa eman da, hurrenez hurren.

Langabeziaren iraupenari dagokionez, langabetuen %51,1ek urte bat baino gutxiago darama langabezi egoeran eta %48,9ak urte bat baino gehiago darama egoera horretan (aurreko hiruhilekoan baino 7,4 puntu gutxiago).

Ikasketa – mailaren arabera, Estatistikako Institutu Nazionalaren - EIN - arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri) langabetuen %39k derrigorrezko ikasketak ditu eta %32k unibertsitate ikasketak. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan beherapena izan duten talde biak hurrengoak izan dira: Unibertsitate ikasketak dituztenak (-742 pertsona) eta erdi mailako Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak (-695 pertsona).

Jatorriari dagokionez, EINren datuen arabera (Biztanleria Jardueraren Arabera, BJA, sailkatzeko datuak ez daude eskuragarri), langabetuen %81,1 bertakoak dira. Jarraian, Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten langabetu atzerritarrak (%18,4) eta Europar Batasunekoak (<%1).